

2-BALIO PROPOSAMENA

Gure produktua lagungarria izan daiteke gizarterako, gizartea modernizatuko duelako. Honekin, gizartearen bizitza erraztuko lirateke, konkretuki iphone erabiltzen dutenentzat. Mugikor marka hauek, haien modeloen bateria azkar amaitzen da, bateria mugikorra mugatzen duen atala da, eta kapazitate gutxi izanda produktuaren salmenta kaltetzen du. Horrexegatik, iphonek bezeroak gal ditzake, bezeroentzat bateria garrantzitsua delako. Gure zerbitzuaren bitartez gatazka hau konponduko dugu eta honekin enpresak etekinak lortuko ditu.

Balio kuantitatiboari begira, gure produktua abantaila batekin sartuko da merkatura. Apple enpresa oso ezaguna da eta bezero asko ditu mundu osoan zehar. Behin mugikor bat erosita, marka konkretu honetako, gure zerbitzua preinstalatuta egongo da inolako kostu gehigarriarekin.

Aldiz, balio kualitatiboari dagokionez eta beste mugikorreari begira, ez dago beste enpresa bat "Aircharge" edo bateria konpartitzearen ahalmena duena bi mugikorren artean.

Horrez gain, pertsonalizazioa. Apple marka prestigioa dauka, eta bakarrik marka honetako mugikorrak dituztenek erabili ahal izango dute, hori dela eta pertsonalizatu daiteke ondorioz, merkatuan berezitate nabarmena izango dituzten aleak izango dira. Ezin izango dute gure zerbitzua edozein mugikorrak erabili bakarrik Apple erabiltzen duten bezeroak.

Azkenik eskuragarritasuna eta honi lotuta erabilerraztasuna aurki dezakegu. Esan dugun bezala, mugikorrak eskuragarri dauzkagu Apple denda guztietan. Denek mugikorra tresna erabilgarritzat dugunez eta gure egunerako garrantzia denez tresna erabilgarria bihurtuko da gure asmakizuna.

